

1. GAIA:

ERIZAINNTZA IKASKETEN BILAKAERA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Erizaintzako prestakuntza akademikoa gure inguruan XX. mendetik aurrera hasi zen bultzatzen (1. Irudia), eta zainketen beharretara eta gizarte, politika eta hezkuntza aldaketetara egokitzen joan da pixkanaka(1).



1. Irudia. Erizaintzako prestakuntzarako tituluak.


Prestakuntza horren eboluzioan hiru data nabarmentzen dira:

1953an, emagin, praktikante eta erizainak Osasun Laguntzaile Teknikoaren (OLT) tituluan elkartu ziren. Titulu honetan, agindu medikuen mendeko gaitasun teknikoak lehenesten ziren (2,3).

1977an, erizaintzako eskolak unibertsitate arloan integratu ziren, eta hurrengo hamarkadetan diplomaturaren ikasketa planak finkatzen joan ziren, erizaintza diziplina gisa garatzen hasi zelarik (3,4).

Erizaintza unibertsitatera sartzearekin batera lanbidean aritzeko prestakuntzak hobera egin zuen: irakaskuntzaren orientazioa aldatu zen; prestakuntza ospitaleko eremuaz harago hedatu zen; eta, eduki berriak garatu ziren (portaeraren zientziak, osasun komunitarioa, etab.). Erizaintzako prestakuntzan kontzeptu berriak barneratu ziren, hala nola osasunaren sustapena, gaixotasunaren prebentzioa eta pertsona/komunitatearen zaintza integrala(1).

Era berean, esan dezakegu erizaintza ikasketen eboluzioa erizaintza zainketen garapenari lotuta dagoela, eta antzekotasun esanguratsuak ikusten dira arlo akademikoan nahiz asistentzian (2. Irudia) emandako paradigma aldaketan (1,5).



2.Irudia. Paradigma aldaketa arlo akademikoan eta asistentzian.

2010ean, Gradua jarri zen martxan, Europako Unibertsitate Eremura (EUE) egokitzeko prozesuaren testuinguruan. Aurretik, unibertsitate sistema EUEn esparrura (Bolonia plana) (3,6) egokitu zen. Eremu hori sortu zen, hain zuzen, Europako Batasunaren sorrera ekarri zuten ekonomia eta mugikortasun irizpideak hezkuntza esparru batean bateratzeko (3,7). Haren helburuen artean nabarmentzen dira, besteak beste, Europako hezkuntza eta kultura aniztasunarekiko errespetua, Europako unibertsitate sistemaren lehiakortasunaren sustapena nazioarteko esparruan, unibertsitate tituluen sistema konparagarri bat finkatzea Europan, profesionalen eta ikasleen mugikortasuna erraztuz, eta kalitatearen eta bikaintasunaren sustapena, Europako unibertsitate hezkuntzaren balio gisa (7).

Unibertsitatea EEU-n sartzeak goi mailako hezkuntza titulu guztiak gradu/master/doktorego egiturara egokitzeko beharra ekarri zuen. Horren ondorioz, besteak beste, ikasleen laneko denbora kredituetan neurtzen hasi zen, ECTS (European Credit Transfer and Accumulation System) izeneko bidez (8,9). ECTSek ikasturte bakoitzak eskatzen duen lan karga adierazten dute, eta kontuan hartzen dituzte bai ikasgelan egiten diren jarduerak, bai ikasgelatik kanpo egiten direnak: lezio magistralak, mintegiak, lanak, dokumentuen irakurketak, praktikak, lan pertsonala, etab. Ikasturte bateko lan bolumenak 60 kreditu ordezkatzen ditu, eta kreditu bakoitzak 24-30 lan ordu eskatzen ditu (10), unibertsitate batetik bestera aldakorra izan daitekeen arren.

Unibertsitate sisteman, **titulu ofizialak** bost jakintza arlori lotuta daude: Arteak eta Gizarte Zientziak, Zientziak, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, eta Ingeniaritza eta Arkitektura. Titulu horiek **hiru ziklotan** dibertsifikatzen dira (11):

- **Gradua:** 3 edo 4 urteko iraupena eta 180 edo 240 ECTS krediturekin (ikasturte eta ECTS kreditu gehiago dituzten Medikuntza, Farmazia, Arkitektura, Odontologia eta Albaitaritza izan ezik).
- **Masterra:** 1 edo 2 urteko iraupena eta 60-120 ECTS kredituen artean.
- **Doktoregoa:** 3-5 urte bitartean, dedikazioaren arabera.


Unibertsitate sistema EUeren esparrura egokitzean, erizaintza ikasketak gradu gisa ofizialdu ziren, Osasun Zientzien jakintza arloan; hala, hiru ikasturteko diplomatura bat izatetik lau ikasturteko titulu bat izatera aldatu zen. Ikasturte bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu, eta guztira 240 ECTS kreditu egin behar dira.

Erizaintzako gradu orokor batean, 240 ECTS kredituen banaketa honela egiten da (12):

- 60 kreditu, oinarritzko hezkuntzari buruzkoak: anatomia, fisiologia, fisiopatologia, biokimika eta jakintza adar beraren oinarriak edo beste oinarritzko zientzia batzuk.
- 90 kreditu, unibertsitate bakoitzak bere curriculum helburu eta gaitasunen arabera proposatutakoak: erizaintza klinikoa, osasun mentala, osasun publikoa eta komunitarioa, ama-haurrak, etika...
- 90 kreditu inguru, prestakuntza praktikoari buruzkoak.
- 6 kreditu, Gradu Amaierako Lanarenak.

Hirugarren Irudian ikus daitekeenez (1), Graduak prestakuntzaren ondoren unibertsitate master bat egin daiteke, eta, haren orientazio eta edukien arabera, helburua izan daiteke gaitasun profesionaletan sakontzea edo ikerketako gaitasunak eskuratzea, azken kasu horretan doktoregoko ikasketak egiteko sarbidea emanez (12).

Erizaintzako goi mailako ikasketak EUeren esparrura egokitzea garrantzitsua izan zen, aurreko esparruan ezinezkoa baitzen doktoregorako sarrera edukitzea. Doktoregoa egiteko aukera izateak ahalbidetu zuen ere aurrerapausoak ematea erizaintzako ezagutza espezifikoaren desberdinen aitortzan (13).



3. Irudia. Erizaintzako Gradua ahalbidetzen duten ibilbideak(1).

ERIZAINZAKO GRADUA UPV/EHUⁿ

Erizaintzako Graduaren helburu nagusia erizaintzako profesionalak zainketa orokorretan prestatzea da, zereginak betetzeko gai izan daitezen laguntzaren arloan (lehen mailako arreta, arreta espezializatua eta arreta soziosanitarioa), kudeaketa administratiboan, osasunaren sustapenean eta osasun arazoaren prebentzioan, eta norberaren, familiaren eta komunitatearen osasunerako hezkuntzan.

Europako Unibertsitate Sistemak prestakuntza esparru bat ezarri zuen, eta horren barruan **ikasketa planak** definitu ziren, goi mailako hezkuntza erakundeetan. Esparru hori 1125/2003 eta 1393/2007 errege dekretuen bidez egituratu da (10,14). Dekretu horiek ikasketa planen diseinua (justifikazioa, helburuak, gaitasunak, egitura...) arautzen dute, baita horien jarraipena eta ebaluazioa ere.

UPV/EHUko Erizaintzako Graduak guztira **240 ECTS kreditu** ditu (1 ECTS kreditu = 25 ordu), eta honela **banatzen** dira:

- Oinarrizko prestakuntza: 60 kreditu.
- Hautazko kredituak: 18
- Nahitaezko kredituak: 64
- Kanpoko praktikak: 92 kreditu.
- Gradu Amaierako Lana: 6 kreditu.

BIBLIOGRAFIA

1. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kontsulta, 2022/4/1]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>
2. Brito Brito PR. El camino hacia la identidad enfermera. Metas de Enfermería. 2007; 10 (2): 51-4.
3. Hernantes, N. Proyecto docente y proyecto investigador presentado para optar a la plaza de profesor adjunto PAC (L2-D00079-6), UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen Erizaintza II Saila. 2021.
4. Martínez-Martín ML. 30 años de evolución de la formación enfermera en España. Educ Médica. 2007; 10 (2).
5. Uranga Iturriotz MJ. Erizaintzako prestakuntzaren eboluzio historikoa Gipuzkoan. Praktiketako gaitasunen diseinua egungo beharrei egokitzeko. tesia Interneten. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; 2013 kontsulta, 2021/5/13. Eskuragarri hemen: <http://hdl.handle.net/10810/13404>.
6. Allegre C, Blackstone T, Berlinger L, Ruetters J. Sorbonako Adierazpena. Adierazpen bateratua Europako Unibertsitate Sistemaren diseinuaren harmonizaziorako, 1998.
7. Calderón Patier C, Escalera Izquierdo G. La evaluación de la docencia ante el reto del Espacio Europeo de Educación Superior (EEES). Educ XX1. 2008 Jan 2; 11.
8. Europar Batasuna. ECTS erabiltzeko gida. London, United Kingdom; 2015.
9. Luque de la Rosa A, Gutierrez Cáceres R. La integración educativa y social del alumnado con discapacidad en el EEES: Universidad de Bolonia. Rev Complut Educ. 2014 Jan 22; 25 (1).
10. Espainiako Gobernua (2003). 1125/2003 Errege Dekretua, irailaren 5koa, estatu osoan balioa duten unibertsitate titulu ofizialetan Europako kreditu sistema eta kalifikazio sistema ezartzen duena. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. BOE-A-2003-17643, 224 zk., 2003ko irailekoa, I. sekzioa, Xedapen orokorrak, 34355-34356 or., Madril, Espainia: Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatuko Agentzia.
11. Espainiako Gobernua (2011). 99/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituena. Hezkuntza Ministerioa,

BOE-A-2011-2541, 35. zk., 2011ko otsailaren 10ekoa, legeria finkatuaren sekzioa, Madril, Espainia: Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatuko Agentzia.

12. Estrada-Masllorens JM, Galimany-Masclans J, Constanti-Balash M. Enseñanza universitaria de enfermería: de la diplomatura al grado. FEM. 2016; 19(2): 71-6.
13. Lora-López P. Reflexiones sobre el grado y postgrado de enfermería: la investigación en enfermería. Index Enferm. 2008; 17 (2).
14. Espainiako Gobernua. (2007). 1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 29koa, unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duena. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. BOE-A-2007-18770, 260 zk., Madril, Espainia: Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatuko Agentzia.